

AUTOEBALUAZIOA**I.go MODULUA: GORPUTZ-KANPOKO IRAIZKETA TEKNIKAK**

1. Hemodialisian:

- a) Barreiadura eta konbekzio prozesuak ematen dira
- b) Barreiadura, adsortzioa eta konbekzio prozesuak ematen dira
- c) Bakarrik adsortzioa ematen da
- d) Erantzun guztiak okerrak dira

2. Hemodialisian, eliminazioa:

- a) Solutuaren pisu molekularra handiagoa denean eliminazioa ere handiagoa da
- b) Solutuaren lotura proteina plasmatikoeekin handiagoa denean eliminazioa ere handiagoa da
- c) Dialisi fluxuarekiko independentea da
- d) Erantzun guztiak okerrak dira

3. Dialisi peritoneala:

- a) Solutuen elkartrukatzea peritoneoaren bitartez ematen da
- b) Mintzaren erresistentziak ez dauka barreiadura prozesuan inolako eraginik
- c) Barreiadura prozesua dialisi fluxuarekiko independentea da
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

4. Hemodiaragazketa:

- a) Sustantzien eliminazioa presio gradienteak sortzen duen konbekzio prozesu baten bitartez ematen da soilik
- b) Sustantzien eliminazioa kontzentrazio gradienteak sortzen duen barreiadura prozesu baten bitartez ematen da bakarrik
- c) Sustantzien eliminazioa adsortzio prozesuen bitartez ematen da soilik
- d) Erantzun guztiak okerrak dira